

Duela bostaste herritar batek alkateak dekretu baten bidez, mehatxuak eta presioak jasoz zituen Elebeltzeko jarduna eteteko asmoarekin. Horrekin batera, Elebeltz kokatuta dagoen lokaleko jabeari ere mehatxu egin zitzaion, Elebeltzen kontrako neurriak harzeko presioa eraginez.

Lau urte daramatza Elebeltzek, zaborrez berteta eta usteltzen ari zen espazio huts bat berreraiki eta kolorez betetzen. Urte hauetan zehar, mota ezberdinetako ekitaldi kultural eta politikoak burutu dituzte bertan eta bertako ateak beti zabalik egon dira herritar guztientzat bertan ekimen ezberdinak aurrera eramateko. Horrela, herriko hainbat eragile eta norbanakok jarduera anitzak eraman dituzte aurrera bertan. Espazio hau okupatu eta berreskuratu zutenetik orain arte, ez da inolako arazorik egon, ez jabearen salaketarik, ez bizilagunen kexarik, etab. eta aldiz herritar askoren topagune bilakatu da.


Tamalez, Zaballosen udaletxe berriak ez ditu Elebeltzen ateak irekita ikusi nahi, ez gaitu antolatuta nahi, ez du kolorerik nahi, ez aniztasunik, ez kultura herrikoirik, ez espazio librerik. Eta horretarako, hirigintzatik egindako alkateak dekretu bat erabili nahi izan du erabaki politiko bat dena estaltzeko. Gainera, Elebeltzen Aldeko Plataformatik egiten dugun irakurketa da hau ez dela eraso isolatu bat, herri mugimendu osoaren aurkako estrategia baten barnean kokatzen den beste eraso bat baizik. Beraz, inoiz baina beharrezkoagoa da denok batu eta erantzun bateratu bat ematea, horma herrikoiki bat eraikitzea alkateak nahi duen mugimendurik, kultura herrikoirik, antolakuntzarik gabeko herri horren aurrean.

Guzti honen aurrean, Elebeltzen Aldeko Plataformak honako ebazpen hau proposatzen du Lasarte-Oriako Udal Batzarrean:

1. Lasarte-Oriako Udal Batzarrak Elebeltzeko jarduna geldiarazteko eta okupazio mugimendua kriminalizatzeko alkatearen saiakera gaitzesten du eta babes osoa adierazten die Elebeltzi eta bertako kideei.
2. Lasarte-Oriako Udal Batzarrak herritar bati egin zaion mehatxua arbuiatzen du eta bere izena prozedura horretatik kanpo uzteko eskatzen du.
3. Lasarte-Oriako Udal Batzarrak mehatxu hau aurrera eramateko egindako bermerik gabeko prozedura (alegazio eperik gabekoa, prozedura zenbakirik gabekoa, oinarri eta ondorio juridikoak zehazten ez dituetak, eta beraz, defentsa gabeko prozedura bat) gaitzesten du eta prozedura hau bertan behera uzteko deia egiten dio alkateari.

4. Lasarte-Oriako Udal Batzarrak bere helburu politikoak lortzeko alkatetza dekretu baten bidez pribatuen arteko harremanetan sartzeari eta bi aldeak mehatxatzea arbuiazen du.

Elebeltzen Aldeko Plataformaren izenean


Mardor Galardi Fernandez de Aguirre
688609221

Lasarte-Orian, 2016ko Urtarrilaren 28an